

"Guk ez diegu diru gehiegirik ematen argitaletxeei"

Liburutegietan hainbat zerbitzu eskaintzen dituzte gaur egun; internet, ordenagailuak erabiltzeko aukera, musika, bideoak... Hala ere, ez da galdu maileguan liburuak hartzeko edo ikastera joaten direnen erabilera.

Askorentzat ezezaguna bada ere, Liburutegiaren Eguna ospatu zuten atzo. Gaur egun, liburutegiak liburuak maileguan hartzeko baino zerbitzu zabalagoa eskaintzen duten leku bilakatu dira. Hala nola, musika diskak, pelikula zein dokumentalak, baina baita internet erabiltzeko edo ikasketa leku ere badira. Irutxuloko Hitza hiriko hainbat liburutegietara inguratu da, erabiltzaileek bertara zertarako jotzen duten jakin asmoz.

Donostian liburutegi eskaintza zabala dago, edo hori diote behintzat erabiltzaileek; udal liburutegiak daude, unibertsitateko liburutegiak, aldundiak kudeatutakoak... Donostiako Udal Liburutegien Sarean 15 liburutegi baino gehiagoetan dago eskaintza. Bertan esan bezala, liburuez gain, beste aukera ugari dago; Kzguneak, esaterako.

Eleberriak gehien bat

Alderdi Ederreko Liburutegi Nagusian azaldu da Marta Diaz ikaslea, eta Liburutegiaren Eguna denik ez badaki ere, sarritan joaten da bertara. Normalean liburuak hartzera joaten da, baina pelikulak ere hartzen ditu tarteka. Grosekoa da bera, eta ikasteko ere erabiltzen ditu askotan liburutegiak, baina onartu du ikastera gehiago joaten dela Koldo Mitxelena liburutegira. Hala ere, gustatzen zaio bertara kuriositatez inguratzea; "begiratzera inguratzen naiz, ea interesgarria den zerbait aurkitzen dudan, dela musika...", esan du. Zerbitzuari dagokionez, ondo funtzionatzen duela deritzo.

Igor Ostolaza eta Arantxa Iriondok irratian entzun dute Liburutegiaren Eguna dela. Asko erabiltzen dute zerbitzua, gehien bat, hala ere, liburu zein eleberriak hartzeko, baina musika diskoak hartu izan dituzte noizbait, baita pelikularen bat ere. Egiatarrak izanik ere, ez dute beste liburutegietara joateko ohiturarik. Zerbitzuari dagokionez oso pozik azaldu dira, eta sinesten dute liburuak maileguan hartzeko sistema; "guk ez diegu diru gehiegirik ematen argitaletxeei", egin du txantxa Ostolazak. Gaineratu du, "irakurtzeko liburuak hartzeko ez bada ere, aukera handiak ematen ditu liburutegiak, internet, adibidez".

"Denek bidali ninduten hona"

Koldo Mitxelena Kulturuneko liburutegia Gipuzkoako Foru Aldundiaren liburutegiaren egoitza da. Bertan, 16 urtetik gorako pertsonentzako zerbitzua eskaintzen da, eta besteak beste, ezaguna da ikasle askok hara jotzen dutelako lanean aritzera. Alejandra Martinez sevillarra, Donostiara bizitzera iritsi zenean, ikastera joateko liburutegi hau gomendatu ziotela dio; "goizetan non ikasi eta lan egin nezakeen galdetu nuen eta denek bidali ninduten hona", esan du.

Bera Humanitateak ikasten ari da, eta ikerketan ere jarduten du, eta horretarako behar duen material asko bertan duela dio. Izan ere, Koldo Mitxelena liburutegia, bereziki, giza zientziei eta euskal kulturari zuzenduta dago. Hala ere, liburu asko ezin direla atera esaten du, eta askotan, Erdialdean bizi den arren, kontsulta bat bakarrik egiteko inguratu behar izaten duela dio. Gainera pena ematen dio liburu asko euskaraz izateak, berak denbora gutxi baitarama hirian, baina, euskara ikasten hasteko asmoa du lehenbailehen.

Ez dira, ordea, denak ikasleak Koldo Mitxelenan. Ohitura handia dago bertara irakurtzera inguratzeko, dela egunkariak ikusteko, eleberriak lasai irakurtzeko edo aldizkariak kontsultatzeko. Ramon Gaztañaga amararak tarteka egunkaria irakurtzen du bertan. Hala ere, onartzen du gehien bat etxera eramateko liburuen bila joaten dela. Betidanik izan da liburutegiaren parte. Berak ere Martinezen iritzi bera du maileguan hartu ezin daitezkeen liburuen inguruan. Liburu batzuk batzuetan ezin hartu izanak pena ematen dio; "baina oso ondo funtzionatzen du bestela, oso zerbitzu ona da", gaineratu du.

EHUn, 414.983 erabiltzaile

Carlos Santamaria Zentroa da, batik bat, ikasleen lekua; zehazki, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) ikasleen lekua. Zerbitzua EHuko edozein campuseko ikaslerentzat dago zuzendua, nahiz ikaslea ez denak ere bertan kontsultak egiteko edo lanean aritzeko aukera duen. 2011n ireki zuten eta lehen ikasturteko datuek 414.983 pertsona sartu zirela adierazi zuten. Besteak beste, ikasteko gelak, ordenagailuen erabilera, talde-lanak egiteko gelak... eskaintzen ditu eta noski, liburuen mailegua.

Liburutegiaren Egunerako gauza handiegirik ez dutela prestatu azaldu du Julen Zabala bertako langileak, baina ez dutela eguna ahaztu. Egun liburutegietan egiten ari diren murrizketek sortzen duten ezinegonarekin, erabiltzaileak inplikatu nahi izan dituzte, liburuak kulturarako duten garrantzia gogoraraziz. Horretarako, bertako ordenagailuetan zein kartel batzuetan, hori bera jasotzeko ideia izan dute, imajinatu... liburutegirik gabeko mundu bat leloa jarrita. Bestalde, egun hau erabaki dute liburutegiak eskaintzen dituen zerbitzuen inguruko eskuorri bat ateratzeko.

Baina, EHuko ikasleek gain, Erasmusen dauden ikasleek ere aukera dute bertako zerbitzuak erabiltzeko. Marco pinna eta Claudia Deplano italiarrak dira eta egunero joaten dira liburutegira. Beraiek arkitektura ikasten dute eta faltan botatzen dute asteburuetan liburutegiak irekita ez egotea. Ez dituzte hiriko beste liburutegiak erabiltzen, ez baitaude seguru bazkide egiterik izango duten, eta etxetik gertu geratzen zaielako unibertsitatea.